



**2023KO IRAILAREN 11KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko irailaren 11an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Alkateak Amagoia Naldaiz Mingo lehen alkateordearen esku utzi duelarik batzar honen lehendakaritza. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko abuztuaren 1ean egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 64 zenbakidun fakturen zerrenda, EHUN ETA BAT MILA HIRUREHUN ETA HAMAIRU euro ETA LAUROGEITA SEI zentimokoa (101.313,86 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-**

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

**Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntza.-**

2023. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarria izan da, bere espedientean dauden datuen arabera, eta guztira 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

**Euskara ikasten ari direnei.-**



2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Hiru ikasle izan dira eta emango zaien kopurua 1.082,93 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

Gerriko Kultur Elkartea.-

Gerriko Ikerlan Bekaren 2023ko urtarriletik ekainera bitarteko gastuei aurre egiteko, 2.500 € ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 481.04.334.00 partidatik ordainduko da.

IV.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Jundajo Txaranga Taldeari.-

San Migeletako sagardo dastaketa egunean hiru txarangen bilkura antolatzeagatik 2.000 €-ko dirulaguntza ematea, eta hauetatik 1.200 €-ko lehen zatia orain ordaintzea.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 480.01.334.00 partidatik ordainduko da.

V.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei laugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

<b>Baserritarra</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Aitor Iztueta Barandiaran	380 €
Iker Sukia Mesas	490 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>870 €</b>

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.



LAZKAOKO  
UDALA

VI- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea Agauntza erreka gaineko zubiaren gaia nola dagoen. Lehen alkateordeak erantzun dio kontratistak material batekin arazoak izan dituela eta berriz eskatu behar izan zutela. Irailaren 20 ingururako amaitua egozgo dela eta San Miguelen aurretik montatuko dutela.

Bestalde, Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) Hiribarrengo kamioien joan-etorriagatik bizilagunak kezatu direla adierazi du, piboterren bat bota omen zuen kamioien batek. Altuna zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun dio horren aurrean urgentziaz jardun zutela eta konpontzeko asmotan dabilzala. Kamioien joan-etorria kontrolatzeko Udaltzaina jarri zutela. Berez, egurzale batek zuela baimena, baina beste bat baimenik gabe sartu zela. Hasiera baten bi hilabeterako zela baina epe hori pasata jarraitu egin dutela.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, lehen alkateordeak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA